Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko urtarrilaren 18a, asteazkena — 12 — Miércoles, a 18 de enero de 2023



## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA

*654/2022 Foru Agindua, abenduaren 23koa, berreskuratze, eraldaketa eta erresilientzia planaren (BEEP) barruan berrikuntza sozialeko proiektuetarako dirulaguntzen 2022ko deialdia erabakitzeko.*

Departamentuko foru diputatuak honako agindu hau eman du 2022eko abenduaren 23an:

«Foru Gobernuaren Kontseiluak, 2022ko urriaren 4an egindako batzarrean, berreskuratze, eraldaketa eta erresilientzia planaren (BEEP) barruan berrikuntza sozialeko proiektuetarako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak onartu zituen.

10. oinarriak ezartzen duenez, aurkezten diren dirulaguntza eskaerak Ebaluazio Batzorde batek aztertu eta baloratuko ditu, eta batzorde horrek ondoren ebazpen proposamena igorriko dio organo eskudunari. Kasu honetan, eskumen hori Departamentuko foru diputatuari dagokio, 11. oinarriaren 1. atalaren arabera.

Kontuan hartuta bai laguntzak jasotzeko baldintzak eta betebeharrak, baita laguntzak ebaluatu eta kopuruak finkatzeko irizpideak ere, batzorde horrek deialdiaren ebazpen proposamena prestatu du.

Dirulaguntza programa honen jardueren izaera kontuan izanda, baita entitateen irabazi asmorik gabeko izaera ere (finantzaketa eskuratzeko zailtasun handiagoa dutenak), laguntza hauetan jasotako lerro bakoitzaren oinarri espezifikoen 6. oinarrian lehen ordainketa aurreratua egiteko aukera arautzen da, irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako abalak aurkeztu beharrik gabe, dirulaguntzari dagozkion jarduerak gauzatzeko, betiere aurrekontu-erabilgarritasuna badago eta emandako dirulaguntzaren guztizkoaren % 50 gainditzen ez badute, erakunde interesdunak aurrerakinaren beharra justifikatu ondoren.

Bestalde, 10. oinarriaren 2. atalak eta urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Prozedura Administratibo Erkideari buruzkoak, 45.1.b) artikuluan ezarritakoa betez, deialdi honen ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du, eta jakinarazpena egintzat ulertuko da lege ondorio guztietarako, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hori horrela, Gizarte Politiketako foru diputatu honek,

XEDATZEN DU

*Lehenengo.* Ematea eta zenbatekoak xedatzea, 2.2 (Berrikuntza sozialeko proiektu pilotuak, haurrak eta nerabeak babesteko, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak babesteko, desgaitasunen bat duten pertsonen autonomia eta independentzia sustatzeko eta gizarteratzeko) eta 3 (Etxean zainketa berritzaileak hobetzeko eta sustatzeko zerbitzu berriak ezartzeko edo egungo zerbitzuak egokitzeko proiektuak finantzatzeko) lerroetako dirulaguntzak, ondoren adierazten diren erakundeei eta zehazten diren aurrekontu-partiden kargura:

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE POLÍTICAS SOCIALES

*Orden Foral 654/2022, de 23 de diciembre, por la que se resuelve la convocatoria 2022 de subvenciones a proyectos de innovación social dentro del plan de recuperación, transformación y resiliencia (PRTR).*

La diputada foral del Departamento ha dictado, con fecha 23 de diciembre de 2022, la siguiente orden:

«El Consejo de Gobierno Foral, en sesión celebrada el 4 de octubre de 2022, aprobó las bases reguladoras y convocatoria 2022 para la concesión de subvenciones a proyectos de innovación social dentro del plan de recuperación, transformación y resiliencia (PRTR).

La base 10.ª establece que las solicitudes presentadas serán analizadas y valoradas por una Comisión Evaluadora, que elevará propuesta de resolución al órgano competente. En el presente caso, dicha competencia corresponde a la diputada foral del Departamento, tal y como establece el apartado 1 de la base 11.ª

Teniendo en cuenta los requisitos y condiciones a cumplir para optar a las ayudas y los criterios de evaluación y cuantificación de las subvenciones, la citada Comisión ha elevado la correspondiente propuesta de resolución de la convocatoria.

Dada la naturaleza de las acciones subvencionadas así como el carácter de entidades de ánimo sin lucro (con mayores dificultades de acceso a la financiación de sus proyectos), en la base 6.ª de las bases específicas, de cada una de las líneas contempladas en estas ayudas, se regula la posibilidad de realizar un primer pago anticipado, sin necesidad de presentar avales para las entidades sin ánimo de lucro, con el fin de llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención, siempre que exista disponibilidad presupuestaria y no superen el 50 % del total de la subvención concedida, previa justificación de la necesidad de anticipo por la entidad interesada.

De conformidad con lo dispuesto en la base 10.ª, apartado 2 y en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la presente convocatoria será objeto de publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde el día siguiente a dicha publicación.

En su virtud, esta diputada foral de Políticas Sociales,

DISPONE

*Primero.* Conceder las subvenciones y disponer las cantidades, correspondientes a las líneas 2.2 (Proyectos piloto de innovación social para la protección a la infancia y la adolescencia, protección a mujeres víctimas de violencia machista, el fomento de la autonomía e independencia de las personas con discapacidad y para la inclusión social) y 3 (Proyectos de implantación de nuevos servicios o adecuación de servicios actuales para la mejora y fomento de los cuidados innovadores en el domicilio), a las entidades y con cargo partidas presupuestarias que se indican a continuación:

EK\CV GAO-I-2022-08869

*2.2. lerroa. Berrikuntza sozialeko proiektu pilotuak, haurrak eta nerabeak babesteko, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak babesteko, desgaitasunen bat duten pertsonen autonomia eta independentzia sustatzeko eta gizarteratzeko.*

*Línea 2.2. Proyectos piloto de innovación social para la protección a la infancia y la adolescencia, protección a mujeres víctimas de violencia machista, el fomento de la autonomía e independencia de las personas con discapacidad y para la inclusión social.*

| Eskatzailea / Solicitante<br>Kontu saila / Partida presupuestaria | Proiektua / Proyecto | Puntu / Puntos | 2022-2023 onartutakoa / Concedido 2022-2023 (€) | 2022 (€) | 2023 (€) |
|---|---|---|---|---|---|
| Eusko ikaskuntzaren Asmoz Fundazioa 0820.200.481.00.05 | Personas en riesgo de exclusión: habilidades digitales, emocionales y sociales. | 90 | 34.125,00 | 22.522,50 | 11.602,50 |
| Zabalduz Kooperatiba Elkartea 0820.200.481.00.05 | Batzen 2.0: Gazteak Enpleguratzeko Harrera Sistema Gipuzkoan hedatzea | 85 | 49.039,60 | 32.366,14 | 16.673,46 |
| Asociación Guipuzcoana de Autismo, GAUTENA 0820.200.481.00.05 | MECI: Matriz Evaluadora de Conducta Inadaptada | 83 | 58.231,80 | 38.432,99 | 19.798,81 |
| Fundación Goyeneche de San Sebastián 0820.200.481.00.05 | Auzoan: apoyos personalizados en la comunidad | 82 | 45.150,00 | 29.799,00 | 15.351,00 |
| Hospital San Juan de Dios 0820.200.481.00.05 | Despliegue del impacto de Errondo Gure Etxea | 82 | 69.450,00 | 45.837,00 | 23.613,00 |
| Kutxa Fundazioa 0820.200.481.00.05 | Topak Proiektuaren eredu esperimentala: konpromiso eko-soziala aktibatzen | 81 | 119.625,00 | 78.952,50 | 40.672,50 |
| Gestión de Servicios Residenciales S.C.L 0820.200.470.00.03 | Mediacare: diseño para despliegue de una solución audiovisual | 80 | 78.549,15 | 51.842,44 | 26.706,71 |
| Ekin emakumeak elkartea 0820.200.481.00.05 | Bazterketa-arriskuan dauden migratutako familien estresaren. Ikerketa eta aurrera egiteko proposamena | 79 | 20.444,86 | | 20.444,86 |
| | | Guztira/Total | 474.615,41 | 299.752,57 | 174.862,84 |

*3. lerroa. Etxean zainketa berritzaileak hobetzeko eta sustatzeko zerbitzu berriak ezartzeko edo egungo zerbitzuak egokitzeko proiektuak finantzatzeko.*

*Línea 3. Proyectos de implantación de nuevos servicios o adecuación de servicios actuales para la mejora y fomento de los cuidados innovadores en el domicilio.*

| Eskatzailea / Solicitante<br>Kontu saila / Partida presupuestaria | Proiektua / Proyecto | Puntu / Puntos | 2022-2023 onartutako / Concedido 2022-2023 (€) | 2022 (€) | 2023 (€) |
|---|---|---|---|---|---|
| Azpeitiko Udala 0820.200.461.01.05 | Etxez etxeko zerbitzu integrala | 54 | 84.948,00 | 42.474,00 | 42.474,00 |
| Urretxuko Udala 0820.200.461.01.05 | Prestación remota de un servicio de apoyo al cuidado dirigido a personas mayores que viven en su hogar en situación de fragilidad o dependencia | 64 | 76.913,07 | 38.456,54 | 38.456,54 |
| Urola Garaia Mankomunitatea 0820.200.461.01.05 | Urola-Garaia Zaintza Lab. | 70 | 167.874,90 | 83.937,45 | 83.937,44 |
| Oñatiko Udala 0820.200.461.01.05 | Goxara | 60 | 51.300,00 | 25.650,00 | 25.650,00 |
| | | Guztira/Total | 381.035,97 | 190.517,99 | 190.517,98 |

*Bigarren.* Ezestea jarraian adierazitako dirulaguntzak, aipatzen diren arrazoiengatik:

*2.2. lerroa. Berrikuntza sozialeko proiektu pilotuak, haurrak eta nerabeak babesteko, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak babesteko, desgaitasunen bat duten pertsonen autonomia eta independentzia sustatzeko eta gizarteratzeko.*

*Segundo.* Desestimar las solicitudes que se indican a continuación, por los motivos que se señalan:

*Línea 2.2. Proyectos piloto de innovación social para la protección a la infancia y la adolescencia, protección a mujeres víctimas de violencia machista, el fomento de la autonomía e independencia de las personas con discapacidad y para la inclusión social.*

| *Eskatzailea*<br>*Solicitante* | *Proiektua*<br>*Proyecto* | *Código de denegación*<br>*Ezeztatze kodea* |
|---|---|---|
| Lotura Giza Garapena Koop. elkarte Txikia | APP Kale-TIK. Localización personas sin hogar en Gipuzkoa | 2 |
| Lizartzako Udala | Arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua | 3 |
| Asociación de Trastornos del movimiento de Gipuzkoa (Astramogi) | Atención Integral a Personas con Trastorno de Movimiento | 1 |

*3. lerroa. Etxean zainketa berritzaileak hobetzeko eta sustatzeko zerbitzu berriak ezartzeko edo egungo zerbitzuak egokitzeko proiektuak finantzatzeko.*

— *Eskatzailea:* Azkoitiako Udala.
*Proiektua:* Klausula sozial berritzailea.
*Código de denegación:* 1.

Ezeztearen arrazoia:

a irizpidean adierazitako gutxieneko puntuazioa ez lortzea 4.2 atalaren oinarri espezifikoetan: 1 kodea.

a irizpidean adierazitako gutxieneko puntuazioa ez lortzea 4.2 atalaren oinarri espezifikoetan: 2 kodea.

Ez du betetzen, deialdiaren oinarri orokorretako 18 atala ezarritako gutxieneko aurrekontua, 30.000 €: 3 kodea.

*Hirugarren.* Agintzea Foru Agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu dadila.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Donostiako epaitegietan, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkeztu diezaiokete foru diputatu honi, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.»

Denen jakinerako argitaratzen da hau.

Donostia, 2022ko abenduaren 29a.—Imanole I. Eizmendi Galarza, idazkari teknikoa. (8869)

*Línea 3. Proyectos de implantación de nuevos servicios o adecuación de servicios actuales para la mejora y fomento de los cuidados innovadores en el domicilio.*

— *Solicitante:* Azkoitiako Udala.
*Proyecto:* Klausula sozial berritzailea.
*Ezeztatze kodea:* 1.

Motivos denegación:

No obtener la puntuación mínima requerida en el criterio a del apartado 4.2 de las base específicas: Código 1.

No obtener la puntuación mínima requerida en el criterio a del apartado 4.2 de las bases específicas: Código 2.

Presupuesto inferior a 30.000 € mínimo establecido en las bases generales de la convocatoria, apartado 18: Código 3.

*Tercero.* Ordenar la publicación de la presente Orden Foral en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante esta Diputada Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.»

Lo que se publica para conocimiento general.

San Sebastián, a 29 de diciembre de 2022.—La secretaria técnica, Imanole I. Eizmendi Galarza. (8869)

EK\CV GAO-I-2022-08869